



- 1 Sumusua. Itsusi
- 2 Sumusuako benta, isiltasunak inguratua
- 3 Utzalketa. Urritzate
- 4 Maria Luisa Etxebez bentaren atarian
- 5 Kanpeliñen borda. Urritzate

MARIA LUISAREN

Gure mendietako ahaztuak

Muskilda Tellabide / Asier Agirresarobe

ELEBISTAREN bidez askotan iristen zaizkigu Himalaiako mendietako bailara galduetan garatutako munduak ahazturik bizi direnen berri. Argirik, urik, telebistarik, telefonorik, kotxerik gabe bizi dira mundu zabalean lagun asko eta asko, baina gure herri txikian ere, bai, gure hiri handietatik kilometro gutxira, badira halakoak, hain urrutira joan beharrik gabe.



Egun ederra egin du gaur, eguzkitsua eta hotza. Itsusiko haitzetan egin dugu buelta, eta eguzkia lotara joan denean Sumusuako bentara hurbildu gara, bertako etxeoandre Maria Luisarekin solasteko asmoz. Hantxe dago, Urritzate eta Aritzakun bailarek bat egiten duten lekuan gordeta, Alkatxuriren babesean, garoz eta hareharrizko harkaitzez beteriko mendiz inguratuta, zuhaitz batzuen abaroan, ur gardeneko errekek elkartzen diren zokoan.

■ Urteak pasako ez balira bezala

Belar eta lur hezearen usainean, etxea isilik dago, uraren zurrumurrua eta urtarri-leko haize mina lagun, baratz xume bat aldamenean eta zakur zaunkari baina atsegina atarian, azken mendeetan egon den modu beretsuan, urteak pasako ez balira bezala. Hona etorri garenean denboran zehar bidaia egin dugula iruditu zait. Gaur, Errege eguna, bi milagarren urtea ez da oraindik bailara galdu honetara iritsi. Gure mendi-arropa eta motxila koloretsuak eta



2000 EFEKTUA

kotxe moderna soilik dira arrotz munduaren garapen zorabiagarriak ahazturik utzi duen lasaitasunaren txoko honetan.

Bentaraino oraintsu berritutako pista bat iristen da eta tximiniatik darion keak bakarrik adierazten digu bizilagunak badituela, eta irekia dagoen atetik barrura sartu gara, egurrezko atea emeki ukabilez joz. Etxe barrua iluntasun isilean dago, suaren argitasun dantzaria soilik pareta zahartuetan isladatuta. Bisitariak somatu dituenean, Maria Luisa agertu da: abegiz hartu gaitu, eta taberna gisa jarrita duen gela txikira sartu gara. Gure ibileraren berri eman diogu eta berak, edatekoa eskainiz, sukaldara pasarazi gaitu. Sutondoan dagoen mahaian eseri gara, kanpin-gas lanpara baten argitan. Elizondotik ekartzen du gasa. Sukaldeko leiho txikitik kanpoan ilun dagoela ikusten da, neguko arratsaldeak motzak dira...

Maria Luisa euskara ederrez hasi zaigu bere bizitzaren berri kontu-kontari, "gure euskara ez da ederra, zuena bai" dio berak. Urritzaten jaio zen, gaur oraindik zutik dirauen Kattalinteia bordan. Bera jaio zenean, 1928an, hementxe zegoen Sumusuako benta, "ez dakit noiz izan zen eraikia, 300 urte edo badira". Bera hona etorri aurretik, 1955ean, beste familia bat bizi zen etxe honetan, eta urte hartatik, bertan bizi da,

jakinminak ekarri gaituen txoko honetan. Inoiz ez du itsasorik ikusi.

■ Kontrabandisten denbora

"Garai hartan ez zegoen biderik eta deus ere ez, dena oinez ibiltzen zen". Eta jenderik ibiltzen al zen? "Orain baino gehiago! Orduan kontrabandoa baitzen, Frantziatik Espainiara. Denetik eramaten zen: erlojuak, guardasolak, arropen puntillak, asko. Kafea eta azukrea ere etortzen zen, 30 kiloko zakua hemen-txe paratuta ibiltzen ginen", bizkarra seinelatuz. Goardia zibila asko ibiltzen zen inguru hauetan, horregatik gauz egiten zen kontrabando lana. "Baina ez zituzten ezagutzen hemengo bideak, bistan da, horrela aisego zegoen engainatzea. Bidarraien ere baziren goardak, baina ezagutzen gintuzten, eta bazekiten

bizi behar genuela, guk ongi egiten genien haiei, eta haiek guri." Benta itxi egiten zuen gauean, baina leiho bat uzten zuen irekita "kontrabandistak gose zirelarik edo jan behar zutelarik, orduan irekitzen zen atea. Nere koartoko leihoa bazekiten non zen eta jotzen zuten eta esaten zuten jeiki zaite, jeiki, gosetu gara eta jeikitzen nintzen eta prestatzen nuen jatekoa. Arraultze tortillak eta xingarra eta hola, xistorrak eta dena". Garai hartan bezala, sutondoa txorizoz beteta dago, denak iladan zintzilik jarrita. Esan beharrik ez: bentaren atarian kurrinka ibiltzen diren txerriekin berak eginak. "Gau guziz etortzen zen norbait, gauero asko pasatzen ziren mandoak, zaldiak..."

Egun argitan baserriarrek eta "turistek" alaitzen zuten benta. Egun ere mendizale asko ibiltzen da udan, "Itsusiko peña horiek izugarri maite dituzte". Noski, garai hartan bentan erosten zutena kontrabandoan ekarritakoa izaten zen, edo Erratzura joaten ziren erosketa egitera: 20 kilometro, lau ordu oinez. "Astean hiru itzuli behar ziren eman".

■ Zenbait gauza gogoratzean

Maria Luisak bere haurtzaroa ekarri du gogora: "baginen bost haurride. Ni bakarrik ibili naiz eskolan, Erratzun, lau urtez. Balia-tzen dut ikasitakoa pixkat, sikiera erdara pixkat ikasi nuen eta hemen ikasi dut frantses pixkat". Liburu eta aldizkariz beteak ditu sukaldeko txokoak. Emakume argia eta azkarra da. "Kattalinteia inguruan baserri asko zen eta denetan bazen jende aunitz, gazte asko ginen. Filarmonika jo eta dantzatzen ginen han bertan, soro xabal-xabal batean. Etortzen ziren Baigorritik, Bidarraitik... Igande guziz mezara joaten ginen, Erratzura. Bazkaldu eta igande arratsaldetan egiten genuen gure baile gure soro hartan. Eta neguan firletan aritzen ginen". Guk firlak zer diren jakin ez, eta boloen antzeko jokoa dela azaldu digu. "Joaten ginen gazteak ginelarik noranahi, joaten ginen plazarat, badakizu, gazteak aixa korritzen genuen orduan, lasterka joan eta lasterka etorri... beti Aritzakun eta Urritzaten; esaten zuten gu mendikoak ginela eta ez ginela herrikoen kategoriakoak" dio Maria Luisak. Irriar eta barre txikiak egiten ditu zenbait gauza gogoratzean.

Sua itzaltzen joan da bentara heldu garenetik. "Lehen neguak gogorak ziren, elur



6 Ardiak
Itsusiko Haitzen
inguruetan

7 Kattalinteia,
Maria Luisaren
sorlekua



ARGAZKIAK: MUSKILDA TELLAIDE ETA ASIER AGIRRESARROBE

asko egiten zuen, orain ez du egiten. Auniz sofitua da jendea hotzarekin, orain bada berogailua; bueno, hemen beti sua, baina lehen arropa gutxi zuen jendeak, ez baitzen sosik, jende pobrea zen, eta ez zen bezitzen orain bezala, orain bezitzen gara ongi eta ez dugu sofitzen hotzarekin. Orduan joaten ginen ginuenarekin, ez bait ginen besterik ikusi, konforme, baina orain kanbiatu da eta gauza beste gisara ikusten

dugu..." kexa zantzu bat aurpegian. Sei haur izan zituen, etxe honetan bertan, baina lau jaioberritan hil zitzaizkion: "eri egoten nintzen beti, ez nuen inoren laguntzarik, eta galtzen nituen haurrak. Medikua oinez etorri behar zuen eta ez zen etortzen..." begirada tristetu zaió.

Maizterrak izan dira beti. "Nagusia Baionan da, ni bezala pobrea da hura ere, argia ez dauku eman. 400.000 pezeta balio zuen eta ez zuen pagatu nahi izan. Nahi zuen gu hemendik partitzea. Nerea izan balitz etxea, koartoak jarri eta alkilatuko nituen jendearentzat. Baina arreglatu behar da. Nagusiak zaharra utzi du eta sofituz behar da bizi".

egin duen bezala, errekan garbitzen du arropa.

Alfontso semea bertan bizi da, eta sukaldera sartu-irtena egin du petrolioizko lanpara bat piztera. "Ni zahartzen ari naiz eta ez dut nahi gero hemen bakarrik egon dadin. Maite dut hemen egotea mendian, ez dakit noiz artio, osasuna badugu... Lanean aritzen naiz, baratzean, belarretan, iratzean, ondo bila ere joan izan naiz eta gaitzainak biltzen eta ibiltzen naiz. Ondo biltzea izugarri maite dut. Ez da aunitz izan aurtzen...".

Kanpoan erabat ilun dago, eta sua ia itzali da tximinian. Etxeraino bide luzea daukagu. Eguzkia bezala lotara joan dira zakurra, txerriak eta beste, baina Aritzakun eta Urritzate erreken urek bere amaigabeko bidean jarraitzen du marmarka, duela 100 urte bezala, eta duela 200 bezala,... denborak bezala. □



■ Hemen guztia falta da

Behinola, erabateko isiltasunean gelditu diren bailara hauek bizirik egon ziren: "1960 inguruan Aritzakunen baziren 150 lagun, Urritzaten beste 100 bat; orain ez da inor". Bidegorrietan lau laguneko familia bizi da, hauek ere argindarrrik gabe, baina etxalde ederra daukate. "Guk bidea asfaltatzea nahi dugu, baina ez dute egingo, ez dute nahi. Elekrika ez du jarri nahi inork ere, inork. Aritzakun-go etxeek argia badute, badute labadora, badute telebisionea, guk ez dugu deus ere. Orain dela ehun urte bezala bizi gara, berdin-berdin, beti berdin. Kartorik ez da etortzen, Erratzun uzten dituzte nere kartak guztiak".

Baina... "uzten badugu zergak pagatu gabe, fite etorriko dira. Hortarako ez dira ahan-tziak, zaude trunkil, zerbait galdegiten badugu ez dugu deus izaten, baina hori bai, zerga-biltzaileak heldu dira, bai. Beti pagatu dira, beharko. Argia galdegin dugu, baina ez daukute kaso egiten". Orain ere, beti

■ LOS OLVIDADOS DE NUESTRAS MONTAÑAS

DE vez en cuando, por medio de la televisión, suelen llegar a nuestras casas imágenes de tierras lejanas en las que las gentes viven sin las comodidades a las que estamos perfectamente acostumbrados y sin las que ni siquiera nos imaginamos ya que sea posible vivir. Totalmente olvidados por el mundo moderno, sin electricidad, sin agua corriente, sin teléfonos, ni coches, ni lavadoras o frigoríficos, todavía son muchas las personas que viven en sintonía total con la naturaleza pero en condiciones en ocasiones inaceptables. En este viaje a través del tiempo que hemos hecho, nos hemos acercado hasta algunas de ellas. Pero no vayáis a pensar que hemos recorrido kilómetros y kilómetros hasta Asia, África o Sudamérica. Sin ir tan lejos, en nuestro pequeño país, sí, a muy poca distancia de nuestras ciudades, también existe al menos un lugar en el que te parece que el tiempo se ha parado hace medio siglo. □